

GOI MAILAKO INDUSTRIA ZUZENDARITZAKO PROGRAMA

GAIA	Industria Antolakuntza eta Kudeaketa
ECTS/ORDUAK	200 ORDU
EGUTEGIA	2022/04/28 - 2023/03/10 Og-Or
TOKIA	<u>Arrasate-Mondragón</u>
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Aurrez aurrekoa

**Informazio gehiago
eta izen-ematea**

AURKEZPENA

Industria-sektoreko zuzendarientzako programa. Negozio- eta operazio-estrategia diseinatzeko, estrategia horren hedapena zuzentzeko eta erakundearen bultzatzeko gaitasuna ematen du, eta zuzendari ororen ezaugarri diren erabakiak hartzea indartzen du.

HELBURUAK

- Erakundearen ikuspegi estrategikoa izatea.
- Negozio-estrategien formulazioan aktiboki parte hartzeko gai izatea.
- Negozio-estrategiari lagunduko dion industria-eragiketen estrategia diseinatzea.
- Zuzendari izateko gaitasunak indartzea edo zuzendari gisa erantzukizun berrietarako prestatzea.
- Erabakiak hartzeko prozesua indartzea, ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibotik.
- “Egitea” lantzea: erakundeko pertsonak gidatzea estrategia zabaltzeko eta beharrezko aldaketa sortzeko.

Industria-sektoreko edozein zuzendarik (oraingoak edo potentzialak) negozio- eta eragiketa-estrategia ulertu behar du, pertsonak mobilizatuz aldaketa nola gauzatu jakin behar du, eta teknologiaren eta kudeaketa-sistemen aukerak ikuspegi global batetik ulertu behar ditu. Horretarako, antolakundeko arloak ulertu behar dira, eta horiek nola integratzen diren balioa sortzeko.

Hori dela eta, Industria Goi Zuzendaritzako Programa hazkunde profesionaleko prozesu baten parte da zuzendaritza orokorreko gaitasunak garatu nahi dituzten zuzendarientzat. Industria Goi Zuzendaritzako Programak negozioko pentsamendu estrategikoa sustatzen du, eragiketen estrategian sakontzen du eta erabakiak hartzeko prozesua indartzen du, erakundeak arrakastara eramango dituzten zuzendari hobeak garatzeko.

NORI ZUZENDUA

- Industria-enpresetako zuzendaritza-kontseiluetako/zuzendaritzako kideak.
- Taldeko kudeatzaileak, 5 urteko esperientzia duten zuzendari bihurtzeko aukera dutenak.

PROGRAMA

BLOQUE I: Actuar y decidir desde la Dirección General

- Teoría de la decisión
- Finanzas para la dirección de operaciones
- Legislación laboral en la práctica
- Negociación y teoría de juegos
- Comunicación, Arte de hablar en público
- Gestión de proyectos & cartera multiproyecto

BLOQUE II: Dominar la Estrategia y Gestión de Operaciones

- Estrategia de Operaciones
- Supply-Chain Management
- Demand-driven MRP
- TOC Teoría de las limitaciones
- Gestión de compras estratégicas
- Digitalización de las operaciones

BLOQUE III: Alinear, movilizar e ilusionar a las personas

- El directivo transformador
- Gestión del cambio
- El directivo como seleccionador de personal
- Evaluación del desempeño
- El directivo coach

METODOLOGIA

Programaren metodologia pedagogiko nagusia parte-hartzailea ardatz duen ikaskuntzan oinarritzen da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodo interaktiboak sustatzen ditu kasuaren metodoaren, simulazioen eta zenbait gai funtzional hartzen dituzten proiektuen bidez. Helburu nagusia da parte-hartzaileak erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea, gaitasun hori funtsezkoa baita zuzendaritza nagusiarentzat.

Zehazki, kasuaren metodoa banakako azterketa- eta hausnarketa-prozesu batean oinarritzen da, negozio erreal jakin batean zer erabaki hartu erabakitzeko. Prozesu hori, gero, eztabaidatu eta lan-talde txikietan zehazten da. Azkenik, irakaslea azken saio bateko liderra da, non parte-hartzaile guztiak erabakiak hartzeko prozesuan zehar mugituko baitira, ikaskuntza funtzional zehatzak (hainbat gai) eta aztertutako gaiarekiko zeharkako beste elementu batzuk erabiliz.

Bestalde, simulazioen bidez, parte-hartzaileak erabakiak hartzeko duen gaitasuna garatu nahi da, helburu pedagogiko jakin baterako sortutako egoera baten bizipen zuzenaren bidez, bai eta erabakien ondorioak aztertu ere.

KOORDINAZIOA

Miguel Mediavilla Guisasola, Aitor Lizarralde Aiastui

ONARPEN BALDINTZAK ETA PROZESUA

Parte-hartzaileek egungo zuzendaritza eginkizuna frogatu beharko dute (zuzendaritza kontseiluko kide izatea edo antzekoa) edo enpresako zuzendaritza nagusiaren gomendio bat eduki, zuzendaritza postuetara aldatzea justifikatuko duena. Azken kasu horiek 5 urteko benetako esperientzia erakutsi behar dute lantaldeen buru izaten.

JASOKO DEN TITULAZIOA

Mondragon Unibertsitateak emandako aprobetxamendu-ziurtagiria, Industria Goi Zuzendaritzako Programaren tituluarekin

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/goi-mailako-industria-zuzendaritzako-programa>